




BETERRIKO ALDIZKARIA




# AIURRI

1995eko irailaren 15a. 20. zenbakia. Doan banatzen da.




## AGUR UDARI




# saiakera bilduma dagoeneko salgai

- 1 *Manuel Larramendi: bizitza eta obra*
- 2 *Gerra Zibila andoaindarren begietatik*



2.000 pta



1.500 pta

Zure liburudendan eros ditzakezu

*Erne bazkideak: Bazkunean bertan eros ditzakezue!*



KULTUR  
BAZKUNAREN  
ARGITALPENAK

# Aurkibidea

- 1. AURKIBIDEA.**  
**AIURRITARRAK**  
Txomin Garmendia, sarrera gisara.
- 2. INKESTA.**  
Eta zu, irailan igotzen al zara Erniora?
- 3. LARRAUI.**  
Mapa toponimikoa bukatzeaz.
- 4-5. ANDOAIN.**  
Abuztuaren zehar.  
Txiki-txikitatik eskolara.
- 6. ASTEASU.**  
Ikasgela berria bi urteko haurrentzat.
- 7. BILLABONA-AMASA.**  
Atzerritarra karobi garbiketan.
- 8. ZIZURKIL.**  
II. Car lasterketa.
- 9. ENPRESA.**  
Cubamar: ia 25 urte bakailoa lehortzen.
- 10-11. ERREPORTAIA.**  
Oporraldia Alpeetan.
- 12-13. KULTURA.**  
Asteasu: Txotxongiloak Gainberri baserrian.
- 14. ERRETRATU ZAHARRA.**
- 15. ZE BERRI? / LEHIAKETA.**
- 16. AGENDA.**

**Argitaratzailea:** Manuel Larramendi Kultur Bazkuna. **Egoitza orokorra:** Dr. Huizi kalea 15, 1-esk. 20140 ANDOAIN (Gipuzkoa) ☎ 30 07 32 Fax: 30 07 31 **Babesleak:** Aduna, Andoain, Asteasu, Billabona, Larraul eta Zizurkilgo Udalak.  
**Zuzendaria:** Antxiñe Mendizabal. **Maketatzailea:** Iñaki Garmendia. **Erredakzioa:** Antxiñe Mendizabal, Amagoia Mujika, Ainhoa Oiartzabal **Argazkiak:** Manu Mujika **Komikia:** Iñaki G. Erro. **Publizitate arduraduna:** Mailu Ibarbia. **Banaketa arduraduna:** Iñosken Mujika. **Administratzaile-eragilea:** Kepa Sarasola. **Inprimategia:** Gertu Kop. E. (Zubillaga, Oñati). **Filmaketa:** VideoCys, Donostia. **Lege-gordailua:** SS-202/94 **ISSN:** 1134-0614 **Tirada:** 3.500 ale.

**OHARRA:** Bazkun argitaratzaileak ez du beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko inolako erantzukizunik.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura sailaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamenduaren laguntza jaso du.

# Aiurritarrak

## SARRERA GISARA



**TXOMIN GARMENDIA**

Billabonatar egiña nago; "Berez bear du Billabona´koa" kutsu ori artu ezin dedan arren. Berrobotarrak beti izan degu maite Billabona; Santiotako pestik ere etzitzaigun pasako Billabona´ra etorri gabe. Orduan, gauza aundia izaten zan baita ere, bizikletan jakiña, "kostari buelta ematea" deitzen genion ibillaldi ura! Billabona´ko pestak baldin baziran beintzat, erri ontan izango gendun etxera joan aurreko jolasketa.

Euskaldunak, jan-erana degu pestik nagusia eta Billabona´ko "Is-kiña" ederra zan ortarako. Zenbat bertso kantatu ote det jateixe ontan? 1952garren urtean ere, San Inazio egunean bukatu ziran Billabona´ko Jaiak eta asko utsegin gabe etorri giñan gazte talde bat. Bertsolari Jaialdi bat zan arratsalde eta ez nolanaikoa: Xalbador, Mattin eta Zubikoa, Uztapide, Lasarte eta Lizaso´ren kontra. Basarri zuten gaijartzaile. Beraz, ipartarrak egotarran kontra; saio bikain bat izanik, emengoak er-ten ziran nagusi. Gaur ez bezelako gose bat zegon orduan bertsoak entzuteko eta beste gauz askotarako ere. Entzuten dedanez, neska laguntzeak ere bukatu omen ziran!

Noan arira. Jaialdi artan Basarri´k Uztapide´ri jarritako puntu bat au izan zan:

*Oilloak egiten al dute /bate arrautzikan? /Uztapide´k: /Askotan / ekarritzen det /otarra utsikan, /etzaidazula esan neri /olako itzikan; /eta bizimodurako /ez da laguntzikan.*

Jakiña, orduan oillotegi aundi bat zeukan Uztapide´k eta argatik jarri zion puntu ori Basarri´k. Bertsolariak askotan gezur pranko ere esaten degu, baiña ura egia esana izango zen Uztapide´k ez bai zun denbora askotan jarraitu oillotegiarekin.

Zazpi bertsolari aietatik, lauk egin zituzten mundu ontako lanak eta bakarra dabil oraindik eririk-erri kantari zorionez. Orrela dira mundu ontako joan-etorriak. Joan-etorri oiekin milla aldakuntz ere etorri zaizkigu ordea.

Gure pestak izan duten aldakuntzik aundiena, gaztearen jolasteko moduan izan da ordea. Orduan gaztediaren eginkizunik nagusia pestara joan ezker, dantzan egitea izaten zan; gaur berriz, zigarroa eskutan edo ezañetan hartu eta tabernarik-taberna zurrutean ibilli ezker dana egiña dago. Eta ez dakit, neskak ez ote dabilzan mutillak baiño areago!

Garai batean ere ez giñan danak dantzariak, baiña dantzan zabil-tzanairi begira ere gozaten giñan. Gaur, bertsolari edo aizkolari eta abar bezelaxe, dantzariak ere opiziokoak bakarrik ikusi litezke eta kito. Ez daba izango, musikorik jartzen ez dalako eta dirurik ortan gastatzen ez dalako!


Pestak, banaka batzuentzat bakarrik izaten dute bizimodurako laguntza; gaiñerakoak, atsedentzeko eta jolasteko egunak izaten ditugu poltxikuaren galera tarteko dala. Baiña oraingo ibillerakin poltsaren galera ezezik, osasunaren galera ere ez ote da etorriko? "O zoroak gauez parrandan dabilzanak" esan zun "Lizardi" olerkari ospetsuak. Gaur begira balego zer esango ote luke?

*Billabona´ko txoko ontatik /egin det nere sarrera, /ixtimaturik "Aiurri"koak /egin didaten arrera. /Ongi dakit nik gauz gutxi dala / darabilkiten karrera; /gutxi ori zuen gogoko bada /saiatuko naiz au-rerra.*

## ETA ZU, IRAILEAN IGOTZEN AL ZARA ERNIORA?

HERRITARREN ARTEAN GALDETU DUGU, ETA EDADEKO IA JENDE GEHIENTSUENA ORAIN EZ BADA, INOIZ IGO ZAN DELA KONTURATU GARA. GAZTEEK, BERRIZ, EZ DUTE HORREN TRADIZIOZALEAK EMATEN. GOGORATU BI ASTEBURU GELDITZEN DIRELA ORAINDIK, OHITURA DEN LEGEZ,

IRAILEAN GAILURRERA IGO NAHI DUTENENTZAT. DENA DELA, IRAILA IGARO ETA GERO ERE ERNIO LEKU BERBEREAN EGONGO DA. ZELATUNEN EZ DA ERROMERIAKO MUSIKARIK ENTZUNGO, BAINA HAIZE FRESKOA ETA GIRO BAKETSUA EZ DIRA, ZIUR ASKI, FALTAKO.



### MAIDER OTEGI, IKASLEA. ZIZURKIL.

Lehen joaten nintzen erromeriara baina gaur egun ez dut mendira joateko ohiturarik. Ez naiz oroitzen bertan ospatzen zen festa nolakoa zen, baina gaixotasunak sendatzeko otoitzak eta uztaien kontu hori aspaldiko sinismenak besterik ez dira.



### ALAIN REZOLA, IKASLEA. ADUNA.

Urtero joaten naiz Ernioko erromeriara, igande batean behinik behin. Asko gustatzen zait mendira joatea eta are gehiago Zelatunen ospatzen den festa. Uztaiak ere sartzen ditut burutik behera, gaixotasunak sendatzeko ona omen da eta!




### LAIDA URBIETA, IKASLEA. ANDOAIN.

Ez, ez gara igotzen, (koadrilaren ize-nean hitz egin digu). Erromeria egunean ez bada ere, ez pentsa, hala ere, Erniora igo ez garenik. (Lagunei begiratu die eta...), niregatik ez dago arazorik, aurtan beharbada, igoko gara.



### BAKARNE OTEGI, IKASLEA. ASTEASU.

Asko gustatzen zait Ernioko erromeria. Mendan ibiltzea atsegin dut eta baita bertako erromerian dantzan ibiltzea ere. Uztaiak burutik behera igartzeko ohitura ere badut, erromeriako aspaldiko berezitasuna baita.



### ALBERTO ALONSO, JUBILATUA. BILLABONA.

Gaur egun ez dut denborarik mendira joateko, baina ahal dudanean joaten naiz. Mendira joan eta gainera jai giroan ibiltzeko aukera polita eskaintzen du erromeriak. Ez dut uste gaixo dagoena bertako uztaiei eser sendatzen denik, hara igotzeko sasoia behar da!




### MANUEL GUIRADO, LANGILEA. ANDOAIN.

Igandero ez gara igotzen. Baina urtero igandaren batean edo bestean igotzen gara. Zelatunen primeran pasatzen dugu: ongi bazkaldu eta gero erromeria. Aste Santuan egin ohi ditugu kalbarioak.

ILEAPAINDEGIA  
**GARBINE**  
Bulandegi kalea 13 - 3ºD  
Tel. 69 05 99 ZIZURKIL

**KARROZERIAK LAGUNAK S L**  
TXAPA ETA PINTURA  
EGA ZERBITZU OFIZIALA  
FURGOI ISOTERMIAKOAK  
HOZKAILUAK  
SORABILLA AUZOA - 53. POLIGONOA - ☎ 59 44 48 - ANDOAIN



## MAPA TOPONIMIKOA BUKATZEAR

J. TELLABIDE: "ONDAREA GALTZEN BADA ERE, EZ DEZAGUN OROIMENA GAL"


URRIA HASIERAN EMANGO ZAIE EZAGUTZERA HERRITARREI ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEKO KIDEA DEN JOSU TELLABIDE ETNOLOGOA OSATZEN ARI DEN MAPA TOPONIKOA. 220 IZEN BILDU DITU BERTAN. BILKETA EGITEKO HERRIKO ZAHARRENGANA JO DU ETA IBILALDI LUZEAK ERE EGIN DITU BAZTERRAK ZEHATZ-MEHATZ EZAGUTZEKO. KANPOKOEK HERRIA EZAGUTZEKO AUKERA EZIN HOBEA IZANGO DA MAPA, HALA ERE, LARRAULDAR GAZTE ASKOK ERE TXOKO BAKOITZAREN BEREZKO IZENA EZAGUTU AHAL IZANGO DUTE.

"Kontsumo mapa izateaz gain, mapa kultural-historiko-etnografikoa egin nahi izan dut", adierazi digu Tellabidek. Horregatik xehetasun osoz egindako mapa izateaz gain, herriko historiari buruzko laburpen motz bat, balio etnografiko-historiko-mitologikoa daukaten hainbat txokoren argazkia eta azalpena, eta herriko eraikuntza azpimarragarrienen argazkiak bilduko dira mapan. Gaur egun Larraul osatzen duten 32 baserrien ize-

nak ere bertan agertuko dira, hala nola beren sortze data. Bideei dagokienez, nekazal bideak, gurdi bideak, bidezidorrak, lurrazpiko ubideak, basoak, iturriak, errotak, errekek, bordak, etxeak eta inguruko hainbat leku seinalagarri argitaratuko dira kolorezko mapan.

### 220 TOPONIMO

Orain arte herriko 40 toponimo baino ez zeuden idatziz gordeta; Tellabidek herritarren oroimena arakatuz 220



JOSU TELLABIDE

## HERRIAK FIDEL TOLOSA ETA JOXE MARI ALBISU APAIZEI ESKAINITAKO AFARIA

Hilaren 17an egingo da apaiz aldaketa goizeko 10etan ospatuko den elizkizunean. Bertan izango da gotzaina edota ordezkariaren bat. Bati agurra eta besteari ongietorria emateko bezperan afaria eskainiko zaie bi apaizei herriko ostatuan gaueko bederatzietan. Afarian parte hartu nahi dutenek izena aldeztu aurretik eman beharko dute.

izen biltzea lortu du. Bizirik iraun duten izenak jaso ditu etnologoak, jatorrizko izen historikoa berreskuratu nahian.

"Oso herri txikia da Larraul, baina badu bere aberastasuna", adierazi digu, "herri txiki batzuk bere garaian desagertu egin ziren, Larraul bezalako beste batzuek iraun egin dute, garai batean beren herriaren alde egin zuten jaun handiei zor diegu egungo ondarea".

**BASAJAUN**  
LIBURUDENDA

TESTU LIBURUAK  
(O.H.O. - B.B.B. - L.H. - e.a)

ESKOLARAKO  
OSAGARRIAK

JOKO  
DIDAKTIKOAK

IRAKURKETARAKO  
LIBURUAK

ALDIZKARIAK

PAPERDENDA

KALE NAGUSIA, 29 ☎ 69 16 51

**BILLABONA**

*ogi berezi eta artesauak*  
...  
*etxerainoko zerbitzua*

**OGI ZURI** OKINDEGIA, S.L.  
Lizarratekoa, 32 / Elizmendi auzoa  
20159 ASTEASU / ☎ 693294 - 691896

**OGI · GOXO**

• TARTAK • IJITO BESOA • PASTELAK  
• TEILAK-ZIGARRILOAK  
• HOJALDREAK • MAGDALENAK

Kale Nagusia, 26 - Tel. 693294 - BILLABONA

## ABUZTUAN ZE HAR

\* LAU HILDAKO AUTOBIDEAN ISTRIPU BATEN ONDORIOZ

\* ALDERDI POLITIKOEK GOARDIA ZIBILAREN JARRERA SALATU DUTE

**ABUZTUAREN 7AN LAU PERTSONA HIL ZIREN IRURTZUN-ANDOAIN AUTOBIDEA UTZI ETA N-I ERREPIDERA SARTU ZEN MURTZIAKO KAMIOI-HOZKAILU BAT IRAULI, AUTO BAT JO, ARRASTAKA ERAMAN ETA AZPIAN HARRAPATU ZUENEAN. BESTE KAMIOI BAT ERE JO ETA AZPIAN UTZI ZUEN KAMIOI-HOZKAILUAK. KAMIOILARIA, ERREDUREKIN BAINA ONIK ATERA ZEN ISTRIPUTIK.**

**I**stripuaren ondorioz kamioilariek errepide berriari buruz daukaten iritzia kaleratu zuten: errepide berriko maldak oso arriskutsuak omen dira karga handiko kamioientzat batez ere. Diputazioak behin eta berriaz adierazi du legeak agindutako baldintza guztiak betetzen dituela errepideak, hala ere, istripuak eztabaida eta polemika ugari sortarazi zituen ondorengo egunetan.

Gipuzkoako garraioari Diputazioa eraman zituzten A-15ari buruzko kexuak. Itenbideak zailak omen dira teknikoan esanetan. Dena den, seinalizazio berria egiteko erabakia hartu zuten. Hilabete honetan bertan emango ditu Diputazioak ezagutzera errepidean ezarriko diren segurtasun neurriak. Neguan euriarekin eta izotzarekin arazoak larriagotu egingo direla aurrikusten dute, hala ere, kamioilariek.

### ALDERDI POLITIKOEN SALAKETA

Andoaingo Udaleko PSE-EE, EAJ-PNV, EA, IU-EB eta HBk hilaren 23an eta 26ean Goardia Zibilak herriko zenbait etxeetan egin zituen miaketan inguruko salaketa egin zuten. Miaketak egiteko garaian Goardia Zibilak izan zuen portaera salatu zuten, hain zuzen ere, ateak eta holtzak botatz, bizilagunak ikaratz e.a. "Helburuak ez ditu erabiltako metodoak justifikatzen", zioen idatziak, "horrelako jarrerak gaur egun onartezinak diren beste garai batzuk gogorarazten digute".

Arnedoko koartelean ETak egin dako atentatua dela eta, Goardia Zibilak Arabatik iheslariei jarraituz, Andoain inguruak miazteari ekin zion bideetan zenbait kontrol jarriz eta etxeak miatuz.

### LEITZARANGO TUNELEKO EGUZKI PLAKAK LAPURTU DITUZTE

Uztailean jarri zituzten tunelaren ahoan eguzki plakak tunela argiztatzeke. Inguruko balio ekologikoa gorde nahian ezarri zuten sistema aitzindariak hiru milioko kostoa izan du. Ez du ordea, luze iraun, eta lapurrek plakak, bateriak eta mekanismo ia osoa eraman dute. Instalazioa egin duten Eguzki enpresako kideek diotenez, lapurrak "bazekiten zertan ari ziren", eta ziur aski, gaur egun eguzki plakak beste nonbait egongo dira ezarrita.



## HERRIKO HISTORIARI BURUZKO IKERKETAK

GAIA, ETA BI ANDOAINDAR IKERLARIEN ARTEAN

**LAGUNEK AURKEZTU ZUTEN PROIEKTUA HERRIKO HISTORIKERTZEKO UDALAK EMATEN DITUEN DIRULAGUNTZAK JASOKO ASMOZ. GUZTIAK INTERES HANDIKOAK IZAN ARREN, SEI ERATU DITUZTE. MARTXORAKO EGONGO DIRA IKERKETAK ATUTA, ETA ONDOEN HERRIKO HISTORIA JASOTZEN DUEN 'ÇAUR' SAILEAN ARGITURATUKO DITUZTE. SUSANA TRUCHUE-ETA LEYRE IBAÑEZ DIRA IKERLARI ANDOAINDARRAK.**

elaniaz eta euskaraz egingo dituzterlariek lanak: Susana Truchuelo lisis de los principales rasgos políticos de la villa de Andoain en el seiscientos" lana egingo du; Alberto Agirre kari andoaindarrari buruzko ikerlana egingo du Leyre Ibañezek; ikumearen egoera Antzin Errejime-Andoainen" da Ohiane Oliverik ez du duen gaia; Aitor Garmendiak

eta Gorka Alijostesek "Benefizentzia eta Ongizate Soziala Andoainen" gaia ikerituko dute; "Las obras públicas en la construcción de Andoain" izenburupean aurkeztu du Marco Seguiolak bere lana; Mikel Zabaletaren ikerketa gaia ondorengo hau izango da: "Nivel de vida, situación de los trabajadores y conflictividad social en Andoain en los años treinta".



## TXIKI-TXIKITATIK ESKOLARA

HAURTZAINDEGIAN FAMILIAN BAINO INGURUNE ZABALAGOA EZAGUTZEKO AUKERA

**GALARDI AURRESKOLAK IREKI DITU DAGOENEO UDA ONDOREN ATEAK. GALARDIN ORDEA, URTE OSOA IZAN OHI DA MATRIKULAZIO GARAIA; HAURRAK JAIO AHALA, ALEGIA. GAUR EGUN BERROGEI HAUR DAUDE BERTAN. ETA HEZLEEN ESANETAN, GURASOEN PENTSERA ASKO ALDATU DA GALARDI SORTU ZENETIK: HASIERAN HAURRA ZAITZEKO ZERBITZU SOIL GISA HARTZEN BAZUTEN ERE, GAUR EGUN BEREN SEME-ALABEN HEZKUNTZA HELBURU DUTELA ERAMATEN DITUZTE.**



TXIKIENAK  
ESKOLAN  
DAGOENEO

da, edozein gauza egiteko eraginkorragoak eta irekiagoak direla ematen du. "Gurasoak batzuetan sinetsi ezinda egoten dira, etxean horren ezberdin ari-tzen direla ikusiz", diote. Dena den, egia da haurrak estutasun orduak igarotzen dituela normalean lehenengo egunetan, "betiko hortxe geldituko direla uste dute", diote. Horregatik, poliki-poliki inguru berrira molda daitezten ordu gutxi batzuk besterik ez dira hasieran egoten. Egokiena haurra aurrekolan sei orduz egotea da.

Galardi aurre eskola 1978. urtean sortu zen herritar batzuen ekimenez eta garai hartako Familia Plangintza Zentruaren laguntzaz. Plazaola atzealdean egon ziren bi urtez, eta handik egungo egoitzara igaro ziren. 1980. urtean hartu zuen beregain Udalak aurrekola.

**L**an orduetan haurra zaindu ezin dutelako eramaten dituzte oraindik ere guraso askok haurrak aurrekolarara, "hala ere, argi dago, beste aukera batzuk ere badituztela -adierazi digute Itziar Ansak eta Marian Ibaibarriagak-, neskamea edota aitona-amonak adibidez; eta hala ere nahia-go dute hona ekarri".

"Haurra osotasunean hartuz, hau da, garapen fisikoa eta psikologikoa, euren beharrei erantzutea da gure egitekoa", adierazi digute. Haurraren behaketan oinarritzen da beren lana, eta harreman indibidualari garrantzi handia ematen diote. "Hizkuntza, psicomotrizitatea eta sozializazioa dira lan esparru garrantzitsuenak", esan dituzte, "haurraren garapen naturalari jarraitzen diogu, arreta handia eskainiz; ez dugu ezer berririk asmatzen".

### GURASOAK BETI GURASO

Ezin esan familian haurrak oker hezitzen direnik, hala ere hezleen ustez etxean baino ingurune zabalagoa ezagutzeko aukera dauka haurrak aurrekolan. Bestalde, taldean eta bere adineko beste haurrekin egon-

## KANAL ON AUZITAN

LEGEAK EZ DITU HERRI TELEBISTAK KONTUAN HARTZEN

**TELEKOMUNIKAZIO ZUZENDARITZA NAGUSIAK DENUNTZIA JARRI ETA MILIOI BATEKO ISUNA EZARRI ZION UDALARI GAUR EGUN TELEBISTEI BURUZ DAGOEN ARAUDIA EZ BETETZEAGATIK. EMISIO-LOKALA ITXI ETA TRESNERIA ERAMAN ZEZAKETELA ADIERAZI ZITZAION UDALARI, GAINERA. JOSE ANTONIO PEREZ GABARAIN ALKATEAK GAIARI IRTENBIDEREN BAT BILATU NAHIAN, GIPUZKOAKO GOBERNADOREAREKIN HITZ EGIN DU, ETA KANAL ONEK INONGO ARAZORIK GABE EMITITZEN JARRAITUKO DUELA ADIERAZI DIGU.**

**O**rain dela urtebete espeditentea jarri zitzaion telebistari araudia betetzen ez zuelako; hau da, Udalak ez ditu emisioa egiteko behar diren legezko frekuentziak erabiltzen. Eta horien ordez, aeronautika arloari dagozkion frekuentzietaz baliatzen da.

Auzia ordea, ez da horren erraza, legeak ez baititu herri telebistak kontuan hartzen, estatu eta komunitate mailako hedadura dutenak daude soil-soilik araututa. Horretan oinarrituz egin zion aurre orain dela urtebete Udalak espeditenteari, eta alegazioak aurkeztu zituen. Legeak ordea, ez zion arrazoirik eman, eta antzeko kasuan emititzen jarraitzen duten herriko telebistak baldin badaude ere,

horrek ez omen du esan nahi beren kontra joko ez dutenik. Hala ere alkateak adierazi digunez, ez zaie bidezkoa iruditzen Andoaingo telebistaren aurka bereziki neurriak hartzea, horregatik egin du bitartekaritza lana Gipuzkoako Gobernadorearekin harremanetan jarriz.


Zine eta bideo eskolako zuzendaria den Iñaki Aizpuruk etorkizunean zer gertatuko den ez dakiela erantzun digu; era guztietako aurretikoak omen daude, politika koherenterik ez darabilte eta. Herri telebista batzuk itxi egin omen dituzte, eta beste batzuk, bakean utzi dituzte, emititzen jarraitzen zutela jakinda. 1987. urtean hasi zen Kanal On emititzen.



## IKASGELA BERRIA BI URTEKO HAURRENTZAT

### UDALAK HARTU DU IKASGELAREN HORNIKETAREN ARDURA

**PELLO ERROTA IKASTETXEAK ASPALDI ESKAINTZEN ZITUEN BI URTEKO HAURRENTZAKO KLASEAK. LEHENENGO ESKOLAURREKO IKASLEEKIN BATERA IKASTEN ZUTEN, BAINA EZBERDINTASUN HANDIA DAGO ADIN HAUETAKO HAURREN ARTEAN, IKASTETXEKO ZUZENDARIA DEN IRENE OLAZABALEK ESAN DIGUNEZ. HORREXEGATIK EGOKITU DUTE TXIKIENENTZAT SOILIK IZANGO DEN IKASGELA BAT, ETA NOSKI GELA EGOKITZEAZ GAIN, ADIN HAUETAKO HAURREI ERAKUTSI BEHAR ZAIENA ERE MOLDATU DUTE.**



**H**ezkuntza mailan ematen ari den erreforma dela eta, zero urtetik hasiko da haurren eskolaketa eta lehenengo urrats gisa, bi urteko haurren hezkuntza ofiziala egin dute. Gauzak honela, hezkuntza sailak irakasle bat eta erabili beharrek materiala ematen du, nahiz eta ikasgelaren horniketa Udalak burutu. "Haur horien irakaslearekin batera eskolaurreko irakasleak egongo dira lanean", esan digute Ana Legorburu irakasleak eta Irene Olazabal zuzendariak. Izan ere, hamabi ikaslez osaturiko taldea izango da, eta, hasieran, umeak ikastetxera egokitu beharra daukate. "Haurrak beren gurasoekin batera etorriko dira lehenengo egunetan, umeak klaseetara ohitu bitartean", esanez azaldu digute bi irakasleek haurren eskolaketa nolakoa izango den. Berezko or-

dutegia goizeko bederatzietatik eguerdiko hamabi t'erdietarainokoa da, baina haurra integratu bitartean, gurasoek erabakiko dute haurra ikastetxean zenbat denbora eduki. Bestalde, gurasoen esku dago arratsalde ere haurrek klaseak izatea, baina hori aurrerago ikusiko dutela esan digu Irenek.

### EGITASMO BERRITZAILEA

Pello Errota ikastetxean, hezkuntza egitasmo berritzaile baten bidez irakasten da. Ana eta Irene irakasleek esan digutenez, gauzak bere orokortasunean barneratzea eta ume bakoitzaren ikasketak erritmoa errespetatzea ziurtatzen duen egitasmoa da. Irakasleek, haurrak pentsaraztea eta iniziatiba hartzea bultzatzen dituzte proiektu horren bidez, "haur guztiak baitira edozer gauza ikasteko eta egiteko gai" azaldu digu Irenek. Bi urteko haurren ikasturtearen

helburuez galdetzean berriz, "haurren garapen psikologikoa eta pertsonala landu nahi ditugu" esanez erantzun digute bi irakasleek, aurrekolako ikasturtera igarotakoan, taldekidetasuna eta materialen ezagupena bezalako kontzeptuak barneraturik izango dituztela gaineratuz.

Bestalde, bi urteko haurren ikasturterako egokitu duten gela psikomotrozitate gela izandakoa da eta orain, psikomotrozitate lantzeko gelarik gabe gelditu dira, Anaren esanetan.

## BILLABONAKO EUSKALTEGIA

**Matrikula epea:** Irailaren 18tik 22ra.  
**Ordua:** 6etatik - 8etara.

- Euskalduntze maila guztiak
- Alfabetatze ikastaroak
- EGA (Azterketa Billabonan)
- Hizkuntz eskakizunak (P.L.)
- Mintza praktika
- Eskolumeak dituzten gurasoei zuzendutako ikastaroak
- Euskaraz irakurri eta idazteko ikastaroak

**EKINTZAK**  
Asteburueta  
irtenaldiak,  
diapositibak,  
filmeak, musika  
emanaldiak,  
hitzaldiak,  
tailerrak.

ERREBOTE PLAZA 69 25 36

## ALFARO JATETXEA

EGUNEROKO MENUA

Larramendi kalea z/g  
59 40 27 ANDOAIN

## Albañileria USABIAGA

Leku - Ona Etxea, 2 - Iharza auzoa  
Tel. 69 35 60 - 69 34 35  
20150 ZIZURKIL (Gipuzkoa)





## ATZERRITARRAK KAROBI GARBIKETAN

### KANPOKO GAZTEEK HERRIA ETA INGURUAK EZAGUTZEKO AUKERA IZAN DUTE

# Billabona-Amasa

**ABUZTUAN ZEHAR LEKU ASKOTAKO GAZTEAK BILLABONAN IZAN ZIREN. BERTAN IGAROTAKO EGUNETAN GAUZA ASKO IZAN ZITUZTEN EGITEKO ETA IKUSTEKO. KAROBI LANETAN JARDUN ZUTEN BI HAMABOSTALDIETAN BILDU ZIREN 40 LAGUNAK. EGUNERO EUREN ZEREGINA BILLABONAKO KAROBI ZULOAK GARBITZEA ZEN, HERRIA ETA INGURUAK EZAGUTZEAREKIN BATERA. LANA EGI TEAZ GAIN, HERRI KIROLAK, BASERRITARREN JARDUNAK, AFARIAK, ERREBOTE PARTIDUAK ETA BESTE HAINBAT GAUZA EZAGUTZEKO AUKERA IZAN ZUTEN.**



**MUÑIKO KAROBI ZULOAK  
LEHEN ETA ORAIN**

XVI. mendetik mende honen erdira arte lan egiten zen karobietan eta bertatik ateratako kareak lur ongarri gisa eta eraikuntzarako balio zuen. Gaur egun, ustiapena utzita badago ere, txoko preziatuak eta baliotsuak direnez, garbiketa lanak beharrezko ikusi ditu Udalak.

Badira bi urte kanpotarrak Billabonara datozela lan horiek egitera eta inguruneak ezagutzera. Xabier Zabala

Kultura zinegotziak adierazi digunez, gazte hauek hamabostaldia herri ezberdinetan igarotzeko eta jendea ezagutzeko aprobetxatzen dute, turista moduan etorri beharrean askoz hobeto ezagutzen baitira herri barruetako txokoak era honetan.

Japoi, Frantzia, Bizkaia, Madril, Katalunia, Hungria, Polonia eta Balentziako gazteak izan dira Billabonan abuztuaren zehar. Nolabait, euren herrietako enbaxadore bihurtu dira, Euskal Herrian izan duten esperientziaren kontalariak izango baitira herrira itzultzean.

Eusko Jaurlaritzaren eta Udalaren artean egindako proiektua izan da honako hau, eta Aranzadi Zientzia Elkartearen Juantxo eta Tito Arregi izan dira karobietako lanetan zientzi arloa lantzen. Karobiak txukuntzarako gelditzen ari dira bi urte hauetan eginiko lanari esker. Era honetan berreskuratu dira Billabona eta inguruko karobi zuloak.

## TRENBIDERA ERORITAKO GARABI BATEK GIZON BAT ZAURITU ZUEN BILLABONAN

Billabonako saihebidetako eraikitzeke erabiltzen ari den garabietako bat Renfeko trenbidera erori zen abuztuaren 29an. Erortzean gizon baten bat harrapatu zuen azpian garabiak: saihebidetako lanetan ari zen berrogeita hamalau urteko Francisco G.A oiartzuarra. Zanpatu ugari zituen langileak gorputz osoan, eta Donostiako Gurutze Gorriaren ospitalera eramana zuten.

Garabia Madril-Irun norabideko trenbidean gurutzatuta geratu zen. Ondorioz, ordubetez trenak geldirik egon ziren. Edonola ere, egunean zehar autobusez baliatu behar izan zuen Renfek bidaiariak garraiatzeko.



**GOSARIAK - APERITIBOAK  
BILARRA**

**GIRO EDERRA!!**

**KALE NAGUSIA, 20 - ANDOAIN**

**LOATZO ASEGUROAK - ASESORIA**



**ZURE ETORKIZUNA  
BIZI ASEGUROA**

**JOXERRA GARMENDIA MUJICA  
IBON GARMENDIA UGARTE**

Antxin kalea, 3 behe - ☎ 69 39 13 - Faxe 69 38 43 BILLABONA

# BENITO

**HARATEGIA  
URDAITEGIA**

**KALE NAGUSIA, 22 ☎ 69 11 49  
ARROA KALEA, 4 ☎ 69 13 50**

**BILLABONA**



## II. CAR LASTERKETA

### Aitor Goikoetxeari omenaldia

**HEGO EUSKAL HERRIKO CAR TXAPELKETAREN HAMARGARREN LASTERKETA OSPATU ZEN HILAREN BIAN. HOGEITA HAMAZAZPI PARTAIDEK HARTU ZUTEN PARTE HIRU MAILA EZBERDINETAN. ZIZURKILEN LORTUTAKO POSTUAREN ARABERA SAILKATU ZIREN TXAPELKETAKO IRABAZLEAK PUNTUAZIO OROKORREAN.**

Lasterketa hasi aurretik hiru bira eman zioten zirkuituari eta azken biak denbora motzenez egin zutenak jarri ziren irteerako lekurik egokienetan. Ondoren, hiru maila ezberdinetako lasterketak egin zituzten: bata, kadete mai-

lako; bigarrena, 100  $\text{cm}^3$  ko motorra duten *car*-ena; azkenekoa, 125-250  $\text{cm}^3$  dun motordunena.

Alberto Fanarraga bizkaitarra izan zen kadete mailan irabazle. Hamalau urte arteko bederatzigarren gaztetxok hartu zuten parte, eta guztiak irabazi zuten sariren bat. Azpimarratzekoa da zazpi

urteko mutiko batek ere lehiaketan parte hartu zuela. Ander Vilarino gipuzkoarra izan zen bigarren neurketan irabazle, eta azkenekoa berriz, Josu Duran bizkaitarrak irabazi zuen. 125-250  $\text{cm}^3$  ko motordunen lasterketan zortzi lagunek hartu zuten parte eta gainerakoan hogeitaidek.

### OMENALDI APALA

Aitor Goikoetxea omendu asmoz antolatzen dute lasterketa Eusko Carting-ek, Zizurkilgo jai batzordeak eta Aitorren lagunek, Goikoetxea zenaren zaletasuna gogoratuz. Bi mila eta bostehun pertsona bildu dira aurtengo edizioan.



**ELEKTRATRESNAK  
SUKALDERAKO ALTZARIAK**



Arteta kalea, 1 eta 3  
☎ 59 12 26 - Faxa 30 03 45  
**ANDOAIN**



Aseguruak **ARGENTARIA**

**Amaia Kortajare**

Bulandegi bidea, 6 - Telf. eta Faxa 69 37 34

**ZIZURKIL**

Argitarapen honen edizioako laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:

- kutxa fundazioa
- fundación kutxa
- gipuzkoa donostia kutxaren
- gizarte-ekintza
- obra social
- de la caja gipuzkoa san sebastián

ZIZURKIL

# CUBAMAR: IA 25 URTE BAKILAOA LEHORTZEN

JOSE RUIZ, ODOLEAN BAKILAOAREN GATZA DARAMAN GIZONA

XV. MENDEAREN BUKAERARAKO EUSKALDUNAK JADANIK TERNUAKO URETAN BALEA ETA BAKILAOAREN ARRANTZA EGITEN ZUTEN. JOSE RUIZEK, "PEPEK" ASPALDI UTZI ZUEN KUBA EUSKAL HERRIRA ETORTZEKO. 1971. URTEAN ETORRI ZEN ZIZURKILERA ETA BAKILAOA LEHORTZEKO ENPRESA IREKI ZUEN. LEHENENGO URTEAN HOGEI LAGUNEK ERE EGITEN ZUTEN BERTAN LAN, GAUR EGUN, MERKATUAREN GORA-BEHERAK ETA ZENBAIT ALDAKETA DIRELA MEDIO, BOST LAGUN DAUDE. DENA DEN LEHENAGOTIK EZAGU-TZEN ZUEN PEPEK NEGOZIOA: UR HANDITAN IBILIA DA IPARRALDEKO ITSASOETAN ETA EUROPAKO PORTURIK GARRANTZITSUENAK EZAGUTZEN DITU. GAUR EGUN GERO ETA GUTXIAGO DIRA BAKILAOA LEHORTZEN DUTEN ETXEAK, BESTEAK BESTE, JENDEAK NAHIAGO DUELAKO ARRAIN ZURIA ETA FRESKOA. PEPEK DIOenez, HÖRRELA JARRAITUZ GERO, HURRENGO BELAUNALDIK EZ DU BENETAKO BAKILAOA ZER DEN EZAGUTUKO.



**I**slandiatik ekartzen dute normalean bakailaoa itsasuntziz Rotterdam-eraino, eta ondoren kamioiez Zizurkileraino, Bilboko portuan lehorretzea oso garestia baita. Askotan joan izan da, bestalde, Danimarkara edota Eskoziara arraina fresko-fresko ekartzera.

Bakailaoa ekarri, gazitu, lehortu, beste behin gazitu, lehortu eta moztu, paketatu eta ondoren izoztu egiten dute Cubamarren. Garai batean eguzkitan lehortzen zen bakailaoa, buztanetik zintzilik jarrita. Era horretan ura arrainean zehar isuri eta arraina loditu egiten zen. Erretilen gainean jarrita lehortzen zuten gero. Gaur egun airea botatzen duten tunel antzeko batzuetan sartzen dute arraina.

Dena den, gutxi dira gaur egun bakailaoa lehortzen dutenak, izan ere jendeak nahiago du arrain zuria eta freskoa. "Bakailao horiska kalitatea txarrekoa dela uste du jendeak. Ez da konturatzen bakailaoa berez arrain koipetsua dela", esan digu Pepek. Jendeak, nonbait, nahiago du koiperik gabe jan, nahiz eta arrainaren berzko ezaugarriak galdu, eta hori

dela eta, Peperen ustez hurrengo belaunaldiak ez du jakingo benetako bakailaoa nolakoa den. Gaur egun gehien saltzen dena bakailao xerra zuri eta freskoa da.

### KONTSERBARIK ZAHARRENA

Bakailaoa urteetan izan da herri xehearen oinarritzko elikagaia, gaur ordea, dextente garestitu da, eta askoz gutxiago saltzen da. Gaur egun Cubamarrena sartzen den bakailaoaren erdia baino gutxiago banatzen da Euskal Herrian, gainerakoa estatuan saltzen da. Euskaldunek, ohituraz, beste toki batzuetan baino bakailao handiagoa erosten omen dute.

Asko eta oso onak dira Peperen esanetan bakailaoaren ezaugarriak. Eta prestatzeko era asko omen dau-

de, dena den behar bezala prestatzeko hauek dira, kubatarren gomen-dioz, oinarritzko arauak: oso poliki gezatu behar da hozkailuan bertan ura aldikoz gutxi aldatuz, eta ondoren su txiki-txikian jarrita, pazientzia handiz eragin behar da.

Horrelako enpresa batean oinarritzko tresneria zein den galdetu diogu, azkenik, Peperi: airea botatzen duten "tunelak", kamara onak, bakailaoa garbitzeko garbikatuak, arraina mozteko makinak eta tailer mekaniko txiki bat omen dira oinarritzko tresneria, izan ere horrelako lantegi batean gatzak bazter guztiak herdoiltzen omen ditu, eta hondatu baino lehen, etengabe zaindu behar omen da tresneria.

OCTAVIO CANORA

Dr. Huizi, 8 behea  
ANDOAIN

# PAPIRO

KALITATE HANDIKO  
KOADERNAKETAK

## Joxe Mari ITURRALDE

ZURGINDEGIA

Formika lanak, sarrerako eta barruko ate mota guztiak eta edozein zurgintza lan.

ADUNA - ☎ 69 20 81

## OPORRALDIA ALPEETAN

ANDOAINDAR BATEK, BI TOLOSARREK ETA KARIBEKO LAGUN BATEK AIRONMAN PROBA EGIN DUTE

**ASTEBETE ALPEETAN. FURGONETA PRESTATU, TRASTEAK SARTU ETA BIDAIA INPROBISATUAN MURGILDU DIRA XABIN, DINA, PABLO ETA IÑIGO. IDEA BAKARRA BURUAN: ENBRUN-EKO IRONMAN PROBA. BESTE GUZTIA SORTUTAKO GOGOZKO PLANEN ARABERA. LAUKOTE HONETAN XABIN MUJIKAK ETA DINA BILBAOK DUTE PROBA EGITEKO ASMOA, BESTE BIAK LAGUNTAILE LANAK BURUTU, ETA NOSKI, ASTEBETEZ INGURUAK ESKAINTZEN DITUEN AUKERAK APROBETXATZERA JOAN DIRA.**



**XABIN ETA DINA ESTATU ESPAINIARREKO KORRIKALARI BATZUEKIN**

**O**porrak igarotzeko modu asko egon, badago. Gure lagunek ohizkoa ez den abentura zaletasuri jarraituz, Alpeetako gailur garaietan egiten den *ironman* proba gogorrenetakoa aukeratu zuten oporrak igarotzeko. Hilabete lehenago eman zuten ize-na proba honetarako, baina gainontzekoa azken unean prestatu zuten.

Astebete etxetik kanpo Alpeetako mendiak lagun, eta *ironman*-a ongi egiteko ametsa buruan. Proba baino egun batzuk lehenago egin zuten bidaia, egun handia iritsi baino lehen aurrean zutenaz jabetzeko. Aldapan

gora, aldapan behera, ibilbidea ezagutu nahi izan zuten, une larrietan zer topatuko zuten jakin asmoz: "Azken kilometroetan, ibilbidea nolakoa den ezagutzea garrantzitsua da, nekatuta zauden unean ezusterik ez hartzeko", dio Dinak.

Ongi prestatuak zihozten Dina eta Xabin. Bazekiten ze saltsatan sartzen ari ziren, eta burua prestatuak zera-maten Enbrunera. *Ironman* proben artean Enbruneko gogorrena dela esaten dute, baina talde honen ustetan probaren gogortasuna, sufritzen denaren arabera neurtu ohi da. Hala ere, bizikletaz egin beharreko ibilbidea ikusi zutenean, Enbruneko proba egi-

teko prestakuntza fisiko eta psikologiko ona behar direla, eta batez ere burua bere lekuan izan behar dela konturatu ziren.

Ez zuten konpromezurik inorekin eta oso lasai joan ziren Enbrunera. Bai Xabinek bai Dinak *ironman* proba lehenagotik egin zuten, eta behintzat, lehengo aldian senti daitekeen beldurak ez zituen gehiegi kezkatzen, azken batez bazekiten eta, proba amaitzeko prestatuta zeudela. Hala ere proba bakoitzak bere ibilbidea du, eta gorpuzak ez du beti berdin erantzuten.

### ALPEETAKO AIRONMAN PROBA, LASTERKETETAN GOGORRENA

Enbrunera iritsi eta lo egiteko lekukurik ez. "Horiek dira bidaia inprobisatuen ondorioak" dio Xabin Mujikak. Azkenean leku bat topatu zuten eta ahaztezina gainera: "Logelaren ondoan talde bat goizeko ordubietan musika jotzen ari zen eta lauetan jaiki behar genuen gosaltzera. Gainera oso gaizki jotzen zuten eta bazirudien tronpeta gure ohe barruan zegoela" nahikoa barre eta marru utzi omen ziren bizilagun musikarien kontura; "probaren bezpera eguna izateko oso ona" dio Xabinek ironia puntu batez; "Triatloia egun bat lehenago hasi zuen Xabinek" erantsi nahi izan du Dinak barrez.

#### KOMERIAK

Laukoteak primeran pasatu du. Lauek ongi ezagutzen dute elkar eta horrelako egun gogor bat pasatzeko lagun arteko giro ona beharrezkoa dela esan digute, festa giroan eta giro lasaiean egotea beharrezkoa baita. "Lasterketa aitzakia da, eta helburua

gehiegi nekatu gabe eta lasterketari demasako garrantzia eman gabe, astea ahalik eta ondoen igarotzea" esan du andoaindarrak.

Hain proba gogorra egitea askorentzat ez litzateke oporraldietarako aukerarik erakargarriena izango, baina Xabin andoaindarrak dioenez, norberaren oporretako kontzeptua berezia da. Batzuk eguzkia hartzera joaten dira, beste batzuk bidaiak luzeak dituzte gogoko; beretzat urtean zehar egin ezin diren gauzak egiteko dira, oporraldiak. "Gure ilusioa hau zen eta horretarako etorri gara hona. Proba honetan zaletasunaz aritzeaz gain sufritu ere egin dugu, baina une onak oso onak izan dira" dio Dinak.

## PROBAN ZEHAR

Goizeko seiak. Hasiera eman eta aurrera. Neoprenoz jantziriko hainbat eta hainbat pertsona sartu ziren lakuko uretan. Lau kilometro eskuei eta zangoei eragiten. Xabinentzat be-  
rau zen frogarik latzena, hiru probe-



**XABIN ETA DINA PROBA BUKATU OSTEAN**


tan hau baita gahien kostatzen zaiotana. "Igeriketarik atera ondoren bestea eginda dago" pentsatu zuen igeri egiten zuen bitartean. Dinak ere uretatik ateratzean, hurrengoari aurre egin behar zitzaioela, eta "bat gutxiago" pentsatu zuen. Hurrengo proba: 186 kilometro bizikletaz. Neoprenoa kendu eta ziztu bizian bizikleta gai-

nean jarri eta mendiko gora-beheretan sartu ziren. Mendi garaiak ondoan, ibai zuloak behean, eta bide maldatsuan barrena jendearen oihuak lagun, ekin zioten ordu luzez probari. Dinak une latzak izan zituen bizikletaz zihoala belaunetan mina sentitzen baitzuen. Hala ere, berotu zitzaizkionean berriz ere indarberritu eta aurrera egin zuen. Nesketan bigarren zihoan proban eta horrek ere hegialak eman zizkion aurrera jarraitzeko.

## LAU KILOMETRO IGERI, 186 BIZIKLETAZ ETA 42 KORRIKA

Bizikleta utzi eta azken proba heldu ziren. Maratoia zuten gainditu beharra. 42 kilometro luze baina azkenak izango ziren eta ezin bertan behera utzi. Kilometro gutxi falta zirenean, Xabinek oinetakoetan izugarritzko mina sentitu zuen eta une batzuetan gelditu behar izan zuen bide ertzean. Baina buruari gogor eginenez, gorputzaren atsekabeak gainditu eta helmugara iritsi ziren. Dina eta Xabin, helmugan barrena inoiz baino gustorago eta inoiz baino nekatuago ere, baina irribarrea ahoan. Hamalau ordu pasata, helburua bete ondoren gozatuak ziren.

Txoko guztietan jendea zegoen eta bigarren bueltan jendeak korrikalariak ezagutzen zituen. "Arriba España!" ere entzun zuten bidean zehar, jendeak intenzio on guztiarekin animatu nahian.



**XABIN BIZIKLETAKO PROBAN MALDAN GORA**

## GIRO EZIN HOBEA

Enbrunen giroa oso ona, eta lagunak egiteko leku aproposa dela esan digute. Beste probetan ez bezala, hona etortzen den jendea ez da proba askotan ikusten dena. Goi mailako kirolariak baino proba honen filosofia bukatzea da, eta kirolarien artean animatuz ibiltzea ez da omen edonon topatzen.

Pasta eta gazta izan dira talde honen jakiak. Tertulia ugari izan dituzte pasta ostean. Inigo izan dute taldean kontrapuntua, Karibetik etorritako laguna egon baita eurekin Enbrunen. Istorio amerikarren eta euskaldunen nahasketa exotikoa izan da koktelaren frutu emankorra, eta horrez gain umore ona izan dute Alpeetan izandako astebetean.

# Litaua

**KIROL JANTZIAK**

Ama Kandida etorbidea, 6  
Posta kutxatila 110 - ☎ 59 44 47  
**ANDOAIN**

ASTEASU


# TXOTXONGILOAK GAINBERRI BASERRIAN

“MANOLITO XATELITE”, HURRENGO IKUSKIZUNEKO PERTSONAIA

ORAIN DELA ASTE BATZUK ASTEASUKO GAINBERRI BASERRIKO PATATA SORROAN BITXIKERIA BAT AURKITU ZUTEN ETXEKOEK; EZ GIZAKI, EZ LANDARE, EZ ANIMALIA. HASIERA BATEAN EZ ZIOTEN HAREN ITXURA BEREZIARI ERREPARATU ETA NOIZBEHINKA LURRAK EMATEN DITUEN TUBERKOLU EZEZAGUN HORIETAKO BAT BAINO IZANGO EZ ZELAKOAN, BILDU ETA BESTE PATATEKIN BATERA ERAMAN ZUTEN SUKALDERA. LAPIKOAN SARTU ZUTEN ZANKARROI PUSKA EDER BATEKIN ETA BESTE PATATA BATZUEKIN EGOSTEKO ASMOZ. HANDIK PIXKA BATERA PATATA HURA INOLA ERE EZ ZELA BIGUNTZEN KONTURATU ZEN ETXEKO SUKALDARIA. ESKU ARTEAN HARTU ZUEN ETA BENTAN PATATA HURA BESTEAK EZ BEZALAKOA ZELA IRUDITU ZITZAION. AUZOKO ZAHARRENEI GALDETU ZIEN, ETA HALAKO PATATARIK INOIZ IKUSI EZ ZUTELA ESAN ZIOTEN.

**B**itxikeria harekin zer egin ez zekiela eta, baserri ondoan dagoen txabolan sartu zuten. Egunak igaro ziren eta ustezko patata bakarrik ez zegoela konturatu zen: hantxe aurkitu zituen inongo burura itsatsita ez zeuden aurpegiak, gorputzik gabeko buruak, begien orde zuloak baino ez zeuzkaten begitarteak... Lehenengo gauean, eguzkia ezkutatu orduko, irudi haiek guztiak hizketan hasi ziren, etorri berriari galderak etengabe egin ez. Patata itxurako bitxikeria hura zein edo zer zen, nondik etorria zen eta nola iritsi zen jakin zutenean "Manolito Xatelite" deitzea erabaki zuten: Manolito auzoko Manuel ospetsuren baten oroimenez, eta Xatelite espaziotik eroria zelako. Gaur egun estima handitan daukate etxeke guztiak Manolito Xatelite, hain estima handitan, ezen, bertan lan egiten duten "Imajina T" taldeko hurrengo txotxongilo ikuskizuneko pertsonaia nagusia bilakatu baita.

Orain dela lau urte osatu zuten bospasei lagunek "Imajina T" taldea, eta besteak beste, txotxongilo saio ugari



“MANOLITO XELEBRE” ASTEASUN LURRERATZEKO UNEAN

eskaini dituzte Euskal Herriko herri handietako eta txikienetako taberna ugarietan. "Manolito Xatelite" protagonista dutela ari dira egun hauetan hurrengo ikuskizuna buru-belarri prestatzen. Beren nahia urrian Tolosako txotxongilo jaialdirako prest edukitzea da. Espaziarak asmatu duten istorio berrian zer egiteko izango duen kontatzeko galdetu diegu, baina azkenera arte gorde nahi izan dute sekretua. Dena dela, sexoa, traizioak, desioa, zeloak eta era guztietako grinak nahastuko diren "kulebroia" izango dela ziurtatu digute. Gainberrin probokatzea dute gogoko, nola edo hala; gustoko dutena egitea arau; eta txotxongiloei bizitza ematea ia-ia debozio.

"In nomine peccata mundi" deitu zen beren azkenengo ikuskizuna, eta "No apto para meapilas" gaineratu zioten ohar gisa. Haurrentzat antzeko beste oharren bat jartzeari komeni ez ote zen galdetu diegu: "Marrazki bizidunetan ikusten dutena ikusi eta gero, ez daukate ulertzeko batere zailtasunik", erantzun digute. Gure irakurleei ikuskizun hari trazaren bat hartzeko saioa definitzeko eskatu diegu: "Ikuskizun, zezen-jai...", hasi dira esaten, eta azkenean, jende guztiak ulertzeko moduan adierazteko eskatu diegunean, "zerrikeria" bat zela esan digute. Esketx ezberdinen bitartez edozein ikusleren libidoea agerian utzi nahi izan zutela esan daiteke.

## ZELOAK ETA GRINAK NAHASTEN DIREN MELO- DRAMA

Manolito Xatelite halako egoera batean jarriko ote duten galdetu diegu, eta esan digutenagatik espaziorrak ez du, ez, lotsa izpirik izango guztien aurrean bere grinak agertzeko. Dena den, lan berri honek erakutsiko omen ditu bestelako berritasunak ere: besteak beste, orain arteko esketxen orde, 45 minutu iraungo duen istorioa osatu nahi dute, bere trama-drama-melodrama eta guzti.

### TABERNETAN

Urte luzeetako esperientzia eta esperimentuen fruitu izango da ikuskizuna, eta antza denez, ez-ohiko gogoia jarri dute proiektu honetan: "Orain, benetan, nahi duguna egiteko moduan gaude", adierazi digute. Argitasun horretara iristeko bazter ugari bisitatu dituzte urteetan beren ikuskizunak aurkeztuz. Beti egiten dute lan gauez; beti tabernetan: "Tabernak dira herri honetako benetako kultur zentruak; eta gauez jendea, zalantzarik gabe, egunean zehar darabilen hipokresia etxean utzi, eta irretzen da kalera bere benetako gogoia adieraziz", zehaztu digute. Gasteiz eta Iruñea aldeko tabernetan egin omen diete beti harrerarik onena, "Donostian askoz ere itxurakeria handiagoa dago", hori da beren iritzia, eta nonbait halako izaera ez dator bat beraiek eragiten duten probokazioarekin.



IMAGINA T-KO KIDEAK

## “IKUSLEAK GERTU SENTITZEN GAITU”

Ikuskizun bizia da txotxongiloena: "Ikusleak oihalaren atzean zaudela senti dezake, badaki hor zaudela", esan digute. Horrek alderatzen omen du telebistatik. Bestalde, txotxongilo ikuskizun batek gaur egun harrera ona izan nahi badu, telebistan ikusi ezin duena eskaintzera behartuta omen dago. Izan ere, beren ustez telebistak aspaldi galdu zuen bere magia, eta era berean ikuslearen eragiteko indarra: "Ume txikiak ere badaki telebistan agertzen dena ez dela egia", diote. Antzerkiarekin konparatuz, ordea, ez omen dago alde handirik: "Aktoreak sor-

tzen du bere pertsonaia, eta txotxongiloak darabilenak, era berean, bere pertsonaiari bizitza ematen dio". Gaur egun asko omen dira Euskal Herrian txotxongiloekin lan egiten dutenak, "nahiz eta saio guztiak jaialdietan ezkutatu", zehaztu digute. Dena den, saio oso bat egiteak denbora eta diru asko eskatzen duela argitu digute, eta jakina, egiteko hori ofizio izan ezean, eta mezenas esku-zabalen bat izan ezean, lana are gehiago zailtzen da.

Manolito Xateliteren abenturak ikusi ahal izan gabe irten gara Gaineritik. Jende aurrean aurkezteko oraindik behar bezala prestatu gabe omen dago eta. Dena den, gertu egon orduko adieraziko digutela esan digute. Espaziotik erori eta Asteasun lurra hartu ondoren, gainerako asteasuarrek ezagutzeko aukera ezin hobea izan zitekeela adierazi dieguk, bide batez.

**AURRERA  
TABERNA**

Girorik ederrena gazteriarentzat!!  
**ZIZURKIL**



**XIXORI**

**BELARDENDA**

DIETETIKA ZENTRUA  
KONTSULTA NATURISTA

Ondarreta, 9 - TELF. 59 01 99 - 20140 ANDOAIN

## BIGARREN JAUNARTZEA ZIZURKIL GOIAN. 1934.



**ARGAZKIA: PATXI OTEGI.**

**MUTILAK EZKERRETIK ESKUINERA:** Anixeto Olozaga, (Areta); Esteban Salaberria, (San Migel); Bernardo Goenaga, (Garmendi); Paulo Mendizabal, (Saluate); Joxe Garin, (Odolkar); Migel Lertxundi, (Beibategi); Xerapio Mendizabal, (Adunibar); Iñaxio Artola, (Andarbarro); Migel Mari Bengoetxea, (San Millan); Migel Joxe Garmendia, (Kamio-Txiki); Migel Geresta, (Iruñea).

**BIGARREN ILARA EZKERRETIK ESKUINERA:** Pakita Agote, (Zarate); Juanita Ugartemendia, (Xuxparro); Josefina Garmendia, (Burrusti); Nieves Mujika, (Iriarte); Anttoni Mendizabal, (Saluate); Juanita Leunda, (Zubiau-urretxo); Bittori Legarra, (Iragorri); Juanita Zinkugi, (Iola); Flora Bengoetxea, (Adunibar); Juanita Labaka, (Olentzero).

**ESERITA EZKERRITIK ESKUINERA:** Joxepa Kamio, (Zaaepgi); Manoli Arregi, (Altzitturri); Euxebio Sa-

laberria, (San Migel); Paxi Rodriguez, (Benta Etxea); Iñaxi Artola, (Motzane); Joxepa Artola, (Saratxota); Joxepa Irazusta, (Altxurriaga); Ramona Irazusta, (Altxurriaga).

**JOXEPA ARTOLAK** jaso ditu izen horiek guztiak guretzat. Berak kontatu digu San Millan elizan egin zutela jaunartzea On Jose Mari Zubia erretoreak zuzenduta. Bederatzi urte zeuzkaten orduan, jaunartze txikia sei urterekin egin ondoren. Neskek soineko zuria, krema edo urdina eta eskularru zuriak eraman ohi zituzten, errezela buruan, txarolezko oinetakoak eta lehenengo aldiz azpiko galtzak. Mutilek xingola brodatua bizkarrean eta marinel antzeko traje urdina. Eta guztiak liburutxoak eskuetan, gurutzefika lepotik zintzilik eta poltsatxoak gerrian ezkutatuta mezzatik irten ondoren, hurbiltzen zitzaizkien herritarrei gurutzearen seinalea egin ondoren, eskua luzatu eta eskupekoa jasotzeko.



LANBIDE EZBERDINEN  
ARTEKO KOORDINAKETAK

**GASA ETA BEROGINTZA**

KALE NAGUSIA, 59 - ☎ 59 38 44  
ANDOAIN

- ITURGINTZA
- GASA
- BEROGAILUAK
- ELEKTRIZITATEA
- IGELTSARITZA



**ERRENOBIDE**  
JUAN CARLOS ARICETA

**ZURGINDEGIA**

**-Erreformatik oro har  
-Neurrira egindako armairuak**

Agaraitz auzoa, z/g - ☎ eta Faxe 69 26 75  
BILLABONA





## ARKAITZ LASA TRIKITILARIA

ANDOAINDARRA; 16 URTE; PANDEROJO-  
LEA; 3. IEE AITA LARRAMENDI IKASTOLAN.

- **Aitor Letamendia beasaindarrarekin osatzen duzu bikotea?**

- Bai, Billabonan musika ikasten ari gina ezagutu nuen, eta biru urtez geroztik jotzen dugu elkarrekin.

- **Orain dela urtebete munduko txapelketan aurreneko izan zineten? Ze doinu jotzen dituzte beste berri batzuetan?**

- Txapelketan Ingalaterrako eta Italiako partebartzaile ugari zegoen batez ere. Beste berri batzuetan soinua txikiagoa izan obi da, botoi gutxiago izan obi ditu, doinuak askoz ere leunagoak dira, eta gehienek bakarrik jotzen dute. Dantza egiteko baino gehiago, entzuteko doinuak dira. Euskal Herrian trikitia berriz bizi-bizia da.

- **Gaur egun jende gazte ugari ikusten da trikitia jotzen?**

- Bai, Gipuzkoan gehienbat. Lehiaketak ere asko daude, 18 urte arte bakarrik, hala ere. Baina horrek ez du esan nabi guztiek jarraitzen dutenik.

- **Eta zuek, ze asmo daukazue?**

- Nik momentuz jarraitzeko asmoa daukat.

- **Uda partean ibiliko zarete gehienbat erromerietan?**

- Bai, herriko jaietan. Edadeko jendea ibiltzen da, hala ere, gazteak baino gehiago. Gazteek beste musika mota bat nabiago dute.

- **Eta zuk zein musika duzu gogoko?**

- Euskal musika entzuten dut gehienbat. Sei urtekin hasi nintzen ni panderoa jotzen.

- **Zer iruditzen zaizu gaur egun trikitiarekin beste musika mota batzuek egiten dituzten nabasketak?**

- Gustoaren arabera izan obi da hori. Nik gitarra ere jotzen dut, eta askotan jotzen dut soinuarekin batera. Gainera, gurekin batera bateriajole bat hasiko da aurki jotzen. Esperientzia berria izango da guretzat. Ikusiko dugu...


## NOR DA PERTSONAIA EZKUTUA?

Bosgarren lehiaketa honetan lana pixka bat zailtzen saiatu gara. Zuhur begiraiezue aurpegi xeble honen aurpegiera nabarienei, eta laster osatuko duzue benetako begitartea, gure pertsonaia ezkutua asma-tuz.




**Billabonako Truchuelo argazki**

**dendak** eskaini digu sari polita: edonon eta edozein egoeratan zaudela, musika entzun dezazun **walkman paregabea**. Anima zaitetze eta bidalguzue erantzuna lehenbailehen. Aurki egingo dugu zozketa.




**ALOTZ**  
**IZOKINAK**  
KALE BERRIA, 9 - ☎ 59 07 06  
**ANDOAIN**



**"25. URTEMUGA."**  
**PREZIO BEREZIAK**

- Karrete bat erosiz hondartzarako baloi bat oparitzen dugu
- Karrete bat errebelatuz, argazki album bat edo giltzari bat oparitzen dugu

Nagusia, 8 - Telf - Fax 69 12 30  
**BILLABONA**



**XALBARRE**  
**MUSIKA ESKOLA**

- Solfeoa 4urtetik gora
- Akordeoia maila guztiak
- Armonia maila guztiak
- Pianoa

**MATRIKULA ZABALIK**  
Ondarreta kalea 8 Bis. Behea ☎ 30 00 82



**MENDI**  
**AUTOESKOLA**

AGUSTIN DE LEITZA, 11 - ☎ 300604  
20140 ANDOAIN

# Agenda

## IKASTAROAK

### BILLABONA-ZIZURKIL

#### 1. hiruhilabetea:

#### Haurrentzako ekintzak:

Plastika: 5-10 urte.

Antzerkia: 9-12 urte.

Euskal dantza

Dantza kontenporaneo: 8-12 urte.

Balleta: 6-11 urte.

Judo: 5-14 urte.

Musika eskola: solfeoa, txistua, biolina, soinua, klarineta, pianoa, saxofoia.

Pintura: 8 urteik aurrera.

#### Gazte eta helduentzako ekintzak:

Gimnasia: Zizurkilen jubilatuentzat eta aetrobik; Billabonan gimnasia orokorra eta aetrobik.

Yoga

Keramika

Ehungintza

Larruaren lanketa

Ikasketa teknikak: 14-18 urte.

Eskulanak

Bideoa

Musikaterapia

Areto dantzak

Koadernaketa

#### 2. eta 3. hiruhilabeterako:

Kartelgintza

Gozogintza

Altzarien konponketa

Lore lehorrak

Argazkigintza

Senda-belarrak

Landarejaleentzako sukaldaritza

Informazio gehiago Kultur Etxeetan.

## IBILALDIAK

### Mendi Astea Asteasun

#### Irailak 18:

Diapostiba emanaldia: **Alaska**. Ramon Agirre.

#### Irailak 19:

Hitzaldia: **Mendiko segurtasuna**. Antxon Burcio eta Ramon Garate.

#### Irailak 20:

Diapostiba emanaldia: **Baghirathi III**. Felipe Uriarte.

#### Irailak 21:

Hitzaldia: **Erniorako bide zaharrak eta Ernioko erromeriak**. Imanol Goikoetxea.

#### Irailak 23-24:

Ernio inguruan **akanpada**.

#### Irailak 18-25:

Ramon Agirreren **LURRA erakusketa**. Antolatzaileak: Asteasuko Mendizaleak eta Asteasuko Udala.

### Billabonako Aizkardi:

#### Irailak 23-24:

Pirinioetan zehar: Anie (2.504m), Peñe Blaque (2.390m)

## ZINEMA

### Billabonako Gurean:

#### 15-18: "Casper"

#### 22-25: "Historias del Bronx"

#### 29-2: "Dos policias rebeldes"

## FESTAK

### ADUNAKO GAZTE FESTAK

#### Irailak 16:

23.00etan **bertsolariak**: Peñagarikano, Sorozabal, Eguskitze, Egaña, Zeberio eta Agirre. Gaijartzailea: Izaskun Elizburu. Ondoren Akelarre.

#### Irailak 17:

12.00etan Adunako **gazteen II. dantza txapelketa**. 18.00etan: **IV. trikitixa txapelketa**. 22.00etan: Egan.

## BESTE

### ANDOAIN

#### AEK-K antolatuta:

#### Irailak 25-29:

Joxe Ramon Agirrere "Marron"en **argazki erakusketa**. K.En 18.00-20.30.

#### Irailak 26:

Joseba Tapia, Mixel Ducau eta Luis Caminoren saioa: **"Trikitixa munduan zehar"**. K.En 20.00etan.

#### Irailak 28:

Diapostiba emanaldia: **Alaska**. Joxe Ramon Agirre. K.En 20.00etan. Irailaren 28ra arte dago euskaltegian **matrikula epea irekita**.

#### Irailak 16:

**"Tximax"** egunkariaren txotxongiloa. Goikoplazan 15.30etan.



Orremendi  
Kirolak

AUKERA ZABALA  
KIROL ARTIKULUETAN



JUAN BAUTISTA ERRO, 2 - TELF. 59 18 06 ANDOAIN

Ikatzza  
Taberna

GIRORIK JATORRENA !!

Larramendi, 19 - T 59 11 89 ANDOAIN

# AIURRI

BETERRIKO  
ALDIZKARIA



**M. LARRAMENDI**

*Kultur bazkunak  
Argitaratzen du*

## UDALEN BABES ETA LAGUNTZAREKIN

ANDOAIN




BILLABONA



ZIZURKIL




ASTEASU



LARRAUL



ADUNA



# ALLURRALDE UDAL KIROLDEGIA



ANDOAIN

Tfnoa.: 30.01.47

## 95 - 96 IKASTURTERAKO UDAL PATRONATUAREN EKINTZAK

### Urte osoko ikastaroak:

*Fitness; Aerobic; Mantentze gimnasia; Aqua gym;*  
Mantentze igeriketa; Kirol iharduera egokitua  
(adimen urrituentzat).

### Hileroko ikastaroak:




Helduentzako eta haurrentzako 0 eta 1. mailako  
igeriketa. (4 urtetatik aurrera)  
Ikastaroaren hasiera: 1995eko urriak 2.

### IZENEMATEA

**Urte osoko ikastaroak:** Irailaren 13tik aurrera  
goizean 10.00 - 13.00 eta arratsaldean 18.00 - 20.00

**Hileroko ikastaroak:** Irailaren 25etik aurrera  
goizean 10.00 - 13.00 eta arratsaldean 18.00 - 20.00

• Informazio gehiago Allurralde Kiroldegiko bulegoetan.



## PREZIOAK

### AEROBIC - FITNESS - MANTENTZE GIMNASIA - FITNESS COMBI - HIRUGARREN ADINEKOENTZAT GIMNASIA

	2 egun astean	3 egun astean
IKASTARO OSOA	12.200 pta	15.000 pta
IKASTARO ERDIA	7.200 pta	8.900 pta

Talde mugatuak: gutxienez 15 gehienez 25

### AQUAGYM - KIROL IHARDUERA EGOKITUA - MANTENTZE IGERIKETA

	2 egun astean	3 egun astean
IKASTARO OSOA	13.650 pta	17.850 pta
IKASTARO ERDIA	8.200 pta	10.500 pta

Talde mugatuak: gutxienez 10 gehienez 15

### HILEROKO EKINTZAK (IGERIKETA)

2 EGUN ASTEAN:	2.100 pta
3 EGUN ASTEAN:	2.950 pta

• Bazkide ez direnek prezio horien bikoitza ordainduko dute.